

PSE-EE-REN MOZIOA, ATERPE KLIMATIKOEI ETA ESPAZIO PUBLIKOAK BIRNATURALIZATZEARI BURUZKOA

Gure autonomia erkidegoak, Euskadik, aurre egin behar dio hainbat erronkari, gaur egunekoak nahiz etorkizunekoak, eta horietako handiena da klima aldaketarena, eragin globala duelako eta garrantzi handiagoa duelako.

Klima aldaketak inpaktu batzuk eragin ditu gure planetan, eta horietako bat da bero boladarena, geroago eta gogorragoak eta ohikoagoak baitira, klima aldaketak sortzen dituen ondorio kezkarrietako bat.

Aurten udan, gure lurraldea gogor jo duten bero bolada handien lekuko izan gara, eta ezin dugu alde batera utzi muturreko gertaera horiek klima aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzialariek hamarkadak daramatzate arreta jartzen klima aldaketari eta gure egunerokoan klima aldaketaren inpaktuak geroago eta gehiagotan sortu eta gertatzeari.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero boladan, erregistro historiko handia izan zuela, 1981ean baino handiagoa, eta abuztuaren erdialdean bere historiako egunik beroena, 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu baitzituen Euskadiko hainbat tokitan, baita horiek gainditu ere, hala nola Sodupen (Bizkaia) 45,3 gradu, 1981eko 45 eta 44 graduak gaindituta.

Euskadi autonomia erkidegoan bakarrik dekretatu da alerta gorria tenperatura altuengatik, eta espektatibak sobera gainditu dira.

Bizkaian, 43,7 gradu Derion, Galdakaon 43 gradu. Araban, 44,6 gradu Laudion, 42,2 Amurrión, 40,6 gradu Zanbranan eta 40,4 gradu Gasteizen.

Era berean, Gipuzkoan, udalerrri gehienetan ez da iritsi 40 gradura, Elgoibarren, Arrasaten eta Beasainen izan ezik, hortik gora egin baitu.

Temperatura horien guztien ondorioz, Euskadin 48 pertsona artatu dira tenperatura altuek eragindako kalteengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Segidako bero boladek azpimarratzen dute klima aldaketara egokitzeko neurriak hartu behar ditugula gure lurraldean eta gure udalerrietan, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun bezala zaindu eta kontserbatzeko, gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima aldaketaren aurka borrokatu eta horretara egokituz gero, aukera ezin hobea izango dugu udalerrri erresilienteak eta osasungarriak sortzeko.

Horregatik guztiagatik, Arrasateko Udaleko sozialisten udal taldeak MOZIO hau aurkeztzen du, osoko bilkuran eztabaidatu dadin.

Arrasateko Udalari eskatzen zaio azterketa bat egin dezala udalerriko benetako azpiegitura berdeari buruz eta udalerriko eremu grisenetan birnaturalizazioa sustatu dezala.

Arrasateko Udalari eskatzen zaio espazioak kokatzeko, kanpoaldekoak zein barrualdekoak, tenperatura optimoa bermatuko dutenak, bero boladen garaian aterpe klimatiko moduan balio dezaketenak, hala nola lainoztagailuak jartzea Euskara plazan eta pergola bat Muzibarren.

Arrasateko Udalari eskatzen zaio Arrasaten berdatzea sustatu dezala, zuhaitzik edo eguzki babesik ez dagoen eremuetan eta eremu grisetan, neurri moduan gure herriak klima aldaketara egokitzeko eta gure herritarren osasuna babesteko.

Arrasateko Udalari eskatzen zaio azterketa bat egin dezala Musakolan beste ur parke bat eraikitzeko, Villa Amparon eta Santa Barbaran dagoen bezalakoa.

Arrasateko Udalari eskatzen zaio eskolako patioak eraldatzea baloratu dezala, leku inklusiboagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuagoak izan daitezzen.

PSE-EE Arrasate A. Murua

MOCIÓN REFUGIOS CLIMÁTICOS Y RENATURALIZACIÓN DE ESPACIOS PÚBLICOS

Nuestra Comunidad Autónoma, Euskadi, se enfrenta a diferentes retos de presente y futuro, siendo el mayor de ellos, por su afección global y mayor envergadura, el cambio climático.

El cambio climático ha desencadenado una serie de impactos en nuestro planeta y las olas de calor, cada vez más intensas y frecuentes son solo una de las muchas consecuencias alarmantes que produce.

Este verano, hemos sido testigos de fuertes olas de calor que han azotado nuestro territorio y no podemos obviar, que estos eventos extremos están relacionados con el cambio climático.

Los científicos llevan décadas poniendo el foco sobre el cambio climático y sobre el aumento de la frecuencia con la que se producen y afectan los impactos del cambio climático en nuestro día a día.

Un ejemplo claro, es que Euskadi en esta última ola de calor, tuvo un registro histórico de calor superior al de 1981, viviendo a mediados de agosto, la jornada más calurosa de su historia, registrando temperaturas en torno a los 45 grados en diferentes puntos de Euskadi e incluso superándolos, como en Solupe (Vizcaya) 45,3 grados, superando los 45 44 grados de 1981.

Euskadi ha sido la única comunidad autónoma en la que se ha decretado la alerta roja por altas temperaturas, y las expectativas se han superado con creces.

En Vizcaya, 43, 7 grados en el municipio de Derio, en Galdakao, 43 grados. En Álava, 44,6 grados en Llodio, en Amurrio, 42,2, en Zambrana, 40,6 y en Vitoria-Gasteiz, 40, 4 grados.

Igualmente, en Gipuzkoa, la mayoría de los municipios no ha llegado a los 40 grados, excepto Elgoibar, Arrasate y Beasain que sí los han superado.

Temperaturas, todas ellas, que en Euskadi, han supuesto la atención de 48 personas por afecciones relacionadas por las altas temperaturas (30 personas en Vizcaya, 14 en Álava y 4 en Gipuzkoa).

Las sucesivas olas de calor deben ser una llamada de atención para poner en marcha medidas de adaptación al cambio climático en nuestro territorio y nuestros municipios, con el objetivo de preservar y conservar nuestra biodiversidad tal y como la conocemos, salvaguardar y proteger la salud de nuestros ciudadanos y nuestra economía.

Además de ser un reto de gran magnitud, la lucha contra el cambio climático y la adaptación al mismo, deben servirnos como una oportunidad para crear municipios resilientes y saludables.

Por todo ello, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Arrasate Mondragón presenta la siguiente MOCIÓN para su debate en pleno.

Se insta al Ayuntamiento de Arrasate . Mondragón a realizar un estudio sobre la infraestructura verde real del municipio y fomentar la renaturalización en las zonas más grises del municipio.

Se insta al Ayuntamiento de Mondragón a la localización de espacios tanto exteriores como en interior, que garanticen una temperatura óptima, que puedan servir como refugios climáticos en épocas de olas de calor, como por ejemplo la colocación de pulverizaciones en Euskera Plaza y una pérgola en Muxibar.

Se insta al Ayuntamiento de Mondragón a potenciar el reverdecimiento en arrasate, en zonas en la que no haya arbolado o protección solar, y exceso de zonas grises, como medida de adaptación de nuestras ciudades al cambio climático y la protección de la salud de nuestros ciudadanos.

Se insta al Ayuntamiento de Mondragón ha hacer un estudio para la construcción de otro parque de agua en Musakola como ya hay en Villa Amparo y Santa Bárbara.

Se insta al Ayuntamiento de Mondragón a valorar la transformación de los patios escolares para convertirlos en lugares más inclusivos, sostenibles y naturalizados.

PSE-EE Arrasate A. Murua